

# E2030DSS

# APUSTU JOKALEKUA

## FINKAPENERAKO OINARRIAK

# ESCENARIO APUESTA

## LOS PILARES PARA LA TRANSFORMACIÓN

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

ESTRATEGIA 2030 DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN

# 1. Sarrera

Honako Jokaleku hau azken bi urteotan zehar garatutako lan eta hausnarketa prozesuaren emaitza da, Donostiako **Diagnosi Estrategikotik** abiatua (Diagnosia, Joeren analisia eta hiriaren AMIA), non Plan Estrategikoaren Laneko Batzordeak aktiboki eta modu jarraituan parte hartu duen **Posizionamendu Estrategikoarekin.** Etorkizunera begira burututako lan saioetan zehar, egituraren etorkizuneko azterketa bat egin da, hiriarentzat 2030era begira gakoak izango diren aldagaiak, faktoreak eta erronkak hautatuz. Bigarren fase hau adituei egindako hainbat elkarrizketarekin, bilerekin eta agenteei egindako inkestekin osatu da, 2030erako ikuspegian hiriarentzako faktore garrantzitsuen eboluzio-hipotesiei dagokienez.

Gauzatutako posizionamendu estrategikoaren prozesutik 2030eko Donostiarentzako Apustu jokaleku hau eratorri da, zeinak “nahi dugun hiriaren ikuspegia” osa dezakeen eta ikuspegi hori lortzeko sustatu beharreko helburuak eta estrategiak ezartzeko jarraibideak ematen dizkigun; hausnarketa kolektibo eta partekatu baten emaitza da, adituen eta gizartearen parte-hartze handia izan duena, etorkizunean kokatzeko eta 2030eko Donostiarentzako nahi dugun etorkizuna diseinatzeko hausnarketa

# 1. Introducción

El presente Escenario es resultado del proceso de trabajo y reflexión desarrollado a lo largo de estos dos últimos años y que parte del **Diagnóstico Estratégico** de Donostia / San Sebastián (Diagnóstico, Análisis de tendencias y DAFO de la ciudad), en el cual ha tomado parte activa la Comisión de Trabajo del Plan Estratégico, y continua con el **Posicionamiento Estratégico**. A lo largo de las sesiones de trabajo desarrollado en prospectiva, se ha realizado un análisis estructural prospectivo, seleccionando y delimitando las variables, factores y retos claves para la ciudad con vistas al 2030. Esta segunda fase se ha complementado con múltiples entrevistas a expertos, reuniones y una amplia encuesta a agentes sobre las hipótesis de evolución en los factores clave para la ciudad en el horizonte 2030.

El proceso del posicionamiento estratégico llevado a cabo desemboca en esta propuesta de **Escenario apuesta** para la Donostia / San Sebastián del año 2030, que podría conformar la “visión de la ciudad que queremos”, y nos presenta las pautas para establecer los objetivos y las consiguientes estrategias que hemos de impulsar para lograr alcanzar dicha visión; es pues fruto de una reflexión colectiva y compartida, con una amplia participación experta y social, una reflexión estratégica para situarnos

estrategikoa.

en el futuro y diseñar el futuro deseable y posible de la Donostia del 2030.

Jokaleku honetan izaera estrategikoa duten zuzeneko eta zeharkako balio eta faktore garrantzitsuak islatzen saiatu gara, hausnarketa estrategikoan zehar behin eta berriz agertu direnak:

- Bizi-kalitatea eta gizarte-kohesioa
- Berdintasuna eta inklusioa
- Identitatea eta berezitasuna
- Jasangarritasuna
- Identitatea eta berezitasuna
- Erronkei aurre egiteko berrikuntza eta sormena
- Lankidetza (publikoa-pribatua, erakunde artekoa eta hirugarren sektorearekin)
- Erantzukidetasuna eta komunitatearen parte-hartzea
- Hiriaren etorkizuna lurraldean eta nazioarte mailan

Jokalekuaren kontaerak 2030erako nahi dugun Donostiara bideratzeko azpimarratu beharreko alderdiak identifikatzen lagunduko digu, izaera “estrategikoago” batekin (zehaztasun asmorik gabe).

Jokalekua lan-tresna gisa hartu behar da, hain zuzen ere, hiriaren Plan Estrategikoaren helburuak, estrategiak eta proiektuak identifikatzeko prozesuan. Kontaera irakurtzeko, honako galderak kontuan izan beharko dira: hau al da nahi dugun hiria? Zeintzuk dira ikuspegi hau lortzeko jarraitu beharreko bideak?  Hiriarentzako alderdi estrategikoren bat falta al da jokaleku

En el presente Escenario se han pretendido plasmar valores y factores clave y transversales, de carácter estratégico, que han surgido como recurrentes a lo largo del proceso de reflexión estratégica desarrollado:

- Calidad de vida y cohesión social
- Igualdad e inclusión
- Identidad y singularidad
- Sostenibilidad
- Identidad y singularidad
- Innovación y creatividad para abordar los retos
- Colaboración (público-privada, interinstitucional y con el tercer sector)
- Corresponsabilidad y participación comunitaria
- Proyección de ciudad en el territorio e internacional

El relato del escenario nos ayudará en la identificación de los aspectos, con un carácter “más estratégico” (sin ánimo de exhaustividad), sobre los que se debería incidir para encaminarnos a la Donostia que queremos para el 2030.

El Escenario ha de ser considerado como una herramienta de trabajo en el mencionado proceso de identificación de los objetivos, estrategias y proyectos del plan, en la **Estrategia** de la ciudad. Su lectura se ha de abordar teniendo presente los siguientes interrogantes ¿Es esta la ciudad que queremos?, ¿Cuales son los caminos que hemos de seguir para alcanzar esta visión?

honetan?

¿Falta algún aspecto estratégico para la ciudad en este escenario?

Azkenik, aipatzekoa da dokumentu hau berrikusi eta eguneratu dela COVID-19ak eragindako osasun krisia sortu ondoren.

Finalmente señalar que este documento ha sido revisado y actualizado tras la irrupción de la crisis sanitaria producida por el COVID-19.

## 2. DSS2030 Apustu Jokalekuaren deskribapena

*"Finkapenerako oinarriak"*

## 1. Descripción del Escenario Apuesta DSS2030

*"Los Pilares Para La Transformación"*

2030eko urtarrilaren 21a da, eta Donostia berroneratzen ari da San Sebastian egunaren jaia aurten ere pozez ospatu ondoren. Aukera honetan, distira berezia izan du herritarren parte hartzeak hiriko egun handiaren jarduera guztietan, eta presentzia bereziki nabarmena izan dute haur eta gazteek. Haurren danborradak festaren arima gisa finkatzea lortu du, eta hiriak azken hamarkadan izan duen gaztetzea islatzen du.

Es 21 de Enero de 2030 y Donostia se recupera tras haber celebrado con alegría una nueva jornada festiva del Día de San Sebastián. En esta ocasión, la participación ciudadana en todas las actividades del día grande de la ciudad ha brillado especialmente por la destacada presencia de la población infantil y joven. La tamborrada infantil ha conseguido consolidarse como el epicentro de la Fiesta y refleja el rejuvenecimiento que ha experimentado la ciudad en la última década.

Biztanleria gaztetzeko aurrerapausoa gizarte akordioaren eta 2020ko hamarkadaren hasieran abian jarritako politiken ondorioa da. Erakunde eskudunek (funtsean, Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiak) lana eta familia bateragarri egiteko hartutako neurriez harago, hiriko Udalak gazteen bizi baldintzak hobetzeko estrategia baten alde

Este avance hacia el rejuvenecimiento poblacional es resultado del acuerdo social y las políticas que se pusieron en marcha a principios de la década de 2020. Más allá de las medidas para la conciliación familiar adoptadas por las diferentes Instituciones competentes (Gobierno Vasco y Diputación fundamentalmente), el

egin zuen hautu, talde politiko guztien adostasunaz; hori horrela, 2021ean martxan jarri zuen “Donostia Gaztea 2031” estrategia, hiru ardatz nagusien inguruan egituratuta: etxebizitza, enplegua eta aisialdia (kultura, kirola…).

Ayuntamiento de la ciudad, con el consenso de todos los grupos políticos, acuerda una estrategia para mejorar las condiciones de vida de la población joven, lanzando en 2021 la estrategia “Donostia Gaztea 2031”, que se vertebra en tres grandes ejes: vivienda, empleo y ocio (cultura, deporte,…).

Estrategia horren neurri nagusiek Donostiako gazteek bizitza hirian bertan bideratu ahal izatea bilatzen dute, baita laneko arrazoiak edo etxebizitzen garestitasuna zirela medio hiria utzi behar izan zuten gazte langileetako batzuen itzulera bermatzea ere. Neurri horien artean, besteak beste, gazteentzako alokairuko etxebizitza publikoaren parke handia sortzeko jarduketak daude, baita enpresetan lan kontratazio mugagabea sustatzeko pizgarriak hobetzekoak ere, nazioarteko ingurunean erakargarri diren ordainsariak eta lan baldintzak ezarrita. Donostia Sustapenak “Donostia Talent” ekimena indartu du, hiria pertsonekin eta munduan dagoen donostiar talentuarekin lotuko duen antena iraunkorra izan dadin.

Las principales medidas de esta estrategia se orientan a facilitar el desarrollo vital de la juventud donostiarra en la ciudad, así como el retorno a Donostia de una parte de la población joven trabajadora que se había visto obligada a abandonar la ciudad durante los periodos de crisis económica, por razones profesionales, o por carestía de la vivienda. Esas medidas incluyen actuaciones para generar un gran parque de vivienda pública en alquiler para jóvenes o mejorar los incentivos a las empresas para fomentar la contratación laboral indefinida, con condiciones retributivas y profesionales atractivas en el entorno internacional. Desde Fomento de San Sebastián se refuerza la iniciativa “Donostia Talent” como antena permanente que conecta la ciudad con las personas y el talento donostiarra presente en el mundo.

Horrekin batera, ahalegin handiak egin dira enplegua sortu eta mantentzeko, eta hiriko ekintzailetzarako ekosistema sendotzeko, hirian nagusi diren sektoreetan (osasungintza, zerbitzu aurreratuak, kultura, eta beste) enpresa ekimen

En paralelo, se han realizado notables esfuerzos para la creación y mantenimiento de empleo y para reforzar el ecosistema emprendedor de la ciudad con la creación de *hubs* o centros de emprendimiento que ofrecen condiciones

berriak martxan jarri nahi dituzten gazte ekintzaileentzat baldintza abantailatsuak eskaintzen dituzten *hub* edo ekintzailetza guneak sortuta.

ventajosas para los jóvenes emprendedores que quieren poner en marcha nuevas iniciativas empresariales en los diferentes sectores predominantes en la ciudad (salud, servicios avanzados, cultura…).

Aurrez, 2020. urte amaieran, belaunaldi arteko lehen ituna sinatu zuten hiriko gizarte elkarteen ordezkariek (gazteak, adinekoak, etorkinak, eta abar). Egungo egoeran oinarrituta, etorkizuneko gizartearen aldaketaren ondorioak onartzean zetzan ituna (bizi luzetasuna, zainketak, familia egituraren aldaketak, eta abar), erantzukizunak gizarte talde horien arteko kide guztien artean banatzeko. Itunak “zahartze aktibo” eta osasungarri delakoaren aldeko apustua egiten zuen, argi eta garbi. Horretarako, adinekoen jarduera profesionala, komunitarioa eta pertsonala luzatzea zuen helburu, pertsona guztien bizitza itxaropena luzatzen den neurrian.

Previamente, a finales del año 2020, se firmó el primer pacto intergeneracional entre representantes de los diferentes colectivos sociales de la ciudad (jóvenes, mayores, inmigrantes,…). El pacto se centraba en asumir desde la actualidad las implicaciones de los cambios de la sociedad del futuro (longevidad, cuidados, cambios en la estructura familiar, etc.) para repartir las responsabilidades entre los diferentes integrantes de los citados colectivos sociales. El pacto incluía una clara apuesta por el denominado “envejecimiento activo” y saludable, que pasa por extender la actividad de las personas mayores, tanto profesional como comunitaria y personal, en la medida en que se alarga la esperanza de vida para todas las personas.

Komunitateak eta familiek esparru horretan betetzen duten zeregina ahaztu gabe, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Gizarte Zerbitzuen Sistemaren esparruan hiriko zainketen sistema berriz diseinatzeari eta garatzeari erreferentzia egiten dio belaunaldi arteko itunaren funtsezko alderdietako batek, pertsonek behar dituzten zerbitzu soziosanitario guztietara sarbidea dutela bermatu ahal izan

Sin olvidar el papel de la comunidad y de las familias en este ámbito, otro de los aspectos clave del Pacto Intergeneracional se refiere al rediseño y desarrollo de un Sistema de Cuidados en la ciudad, en el marco del Sistema de Servicios Sociales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, que pueda garantizar el acceso a todos los servicios socio-sanitarios necesarios para las personas, con independencia de su

dadin, edozein mailako mendekotasun funtzionala edo pertsonala izanik ere. Halaber, helburua prestatze maila eta egiturak indartzea ere bada, hainbat inguruabar kritiko ets disruptiboren aurrean erantzun ahal izateko (osasun krisiak, larrialdiak…). Horri esker, dauden beharrei erantzuteko plangintza egin ahal izan dute administrazio publikoek, batez ere Udalak, eta baliabideak egokitu ahal izan dituzte, adineko biztanleriaren hazkundearen eta bizialdi luzeagoaren ondoriozko eskarien bilakaerarekin bat etor daitezen.

Honezkero, bizitzaren luzetasuna eta ondoriozko biztanleen zahartzea abagunetzat ikusten dute donostiar gizarteak eta hiriko erakundeek; izan ere, eskulan intentsiboko zerbitzu soziosanitario seguruak martxan jartzen eta osasunarekin zein biztanleen zahartzearekin lotutako zerbitzu eta produktuak garatzen jarraitzeko aukera emango dute, batik bat, hirian dagoen ekosistemaren testuinguruan. Ildo horretan, 2025ean jadanik, zahartzearekin lotutako ikerketarako, esperimentaziorako eta berrikuntzarako nazioarteko erreferentzia bihurtu da ADINBERRI, Donostiako ingurune metropolitarrean dagoen erreferentziako zahartze zentroa.

Donostiar gizartea immigrazioaren erronkari erantzuna emateko ahaleginetan ari da, halaber. 2020ko lehen hamarkadaren erdian gertatu diren nazioarteko krisialdi eta gatazken ondorioz hazi

grado de dependencia funcional o personal, pero que también refuerce su grado de preparación y sus estructuras para dar respuesta ante determinadas circunstancias críticas disruptivas (crisis sanitarias, emergencias,...). Esto ha permitido planificar las necesidades a las que hacer frente desde las administraciones públicas, especialmente del Ayuntamiento, adaptando los recursos a la evolución de las demandas derivadas del aumento de la población mayor y su incremento en términos de longevidad.

La longevidad y el consecuente envejecimiento poblacional es considerado ya por la sociedad donostiarra y sus Instituciones como una oportunidad para continuar con el despliegue de servicios socio-sanitarios seguros, innovadores, intensivos en mano de obra, así como con el desarrollo de servicios y productos vinculados a la salud y al envejecimiento poblacional, sobre todo en el contexto del ecosistema existente en la ciudad. En esta línea, ADINBERRI, centro de referencia de envejecimiento ubicado en el entorno metropolitano de Donostia, se configura como una referencia internacional para la investigación, experimentación e innovación relacionadas con el envejecimiento.

Otro de los desafíos a los que trata de dar respuesta la sociedad donostiarra es el de la inmigración. Las diferentes crisis y conflictos internacionales que se reproducen en la primera

egin dira Europaranzko migrazio fluxuak, eta Euskadi, Gipuzkoa eta Donostia ez daude haietatik kanpo. Erantzun gisa, donostiar gizarteak immigrazioari babesa emateko gizarte sarea sortzearen alde egin du apustu, arrazoi ekonomiko nahiz politikoak direla-eta datozen migratzaileak nahiz errefuxiatuak integratzeko prozesuak erraztu ditzan.

mitad de la década de 2020 provocan un aumento de los flujos migratorios hacia Europa, y Euskadi, Gipuzkoa y Donostia no son ajenos al mismo. Como respuesta, la sociedad donostiarra apuesta por crear una red social de apoyo a la inmigración, cuyo objetivo sea facilitar los procesos de integración de las personas procedentes de otros países por razones económicas o políticas, tengan la condición de migrantes o refugiados.

Hiri kosmopolita eta irekia den heinean, Donostia nazioarteko talentua erakartzeko gune gisa antolatu da 2030ean, eta estatuko beste lurralde batzuetatik eta beste herrialde batzuetatik datozen pertsonen integrazioa errazteko azpiegiturak eta zerbitzuak ditu. Europako Kontseiluak sustatutako kulturarteko ereduetan oinarrituta, biztanle migratzaileei argi eta garbi integrazio prozesuak lehenetsiz arreta emateko mailaz maila ezarri zen integrazio ereduaren emaitza da hori guztia, “ezberdinen arteko” elkarbizitza espazioak sortuz. 2019an jadanik, Donostiari Europa saria eman zion Europako Kontseiluak, hiriaren inplikazioa eta balioak zirela bide. Orain, gizarte integrazioaren eta nazioarteko elkartasunaren erreferentzia da Europan.

Como ciudad cosmopolita y abierta, Donostia / San Sebastián se configura en 2030 como un centro de atracción de talento internacional y cuenta con infraestructuras y servicios que facilitan la integración de las personas procedentes de otras regiones del Estado y otros países. Todo ello es resultado de la progresiva implementación de un modelo de integración que articula una atención a la población migrante con una orientación clara a procesos de integración más efectivos, generando espacios de convivencia “entre diferentes”, basándose en los modelos interculturales potenciados por el Consejo de Europa. Donostia / San Sebastián, que ya había sido reconocida con el Premio Europa 2019 del Consejo de Europa por la implicación de la ciudad y sus valores, se constituye en un referente europeo en integración social y solidaridad internacional.

Ildo beretik, beste hiri batzuekin alderatuz gero, gizartean kohesio maila handia duen hiritzat

En la misma línea, siendo considerada una ciudad con un considerable grado de cohesión

hartzen da Donostia, eta Gizarteratzeko Erakunde arteko Itunari esker, indartu egin ziren pandemiaren ondoriozko eragin ekonomiko eta sozialak arintzeko neurri asistentzialak eta laguntza neurriak, herritar askoren artean izan baitzituzten onodrioak, eta kolektibo hauskorrenen zaurgarritasun egoerei ere eragin zietenez, handiagotu ziren arrakala sozioekonomikoak. Hartara, ituna nabarmen lagungarri izan da gizarteko eta lurraldeko desberdinkeriak (errenta, hezkuntza eta lan arlokoak edo, besteak beste, azpiegituretarako, zerbitzuetarako, kulturarako sarbideen arlokoak) murrizteko bidean aurrera egiten. Ikuspegi berritzaile batetik, prebentziora eta erakundearteko eta komunitateko ekintzara bideratutako estrategiak eta lan ildoak ditu ezarrita, eta horri esker, kohesio maila hobetu eta donostiar biztanle sektore ahulenei eragiten zieten bazterketa faktoreak arindu ahal izan dira; besteak beste, pobrezia, dibertsitate funtzionala, osasun mentala, etxerik ez izatea, bakardadea, iraupen luzeko langabezia, eta abar. Adierazi behar da gizarte kohesioaren arloko estrategiak ez direla udal mugartera mugatzen; aitzitik, hiriaz gaindiko erantzuna lantzen da, Gipuzkoako lurralde osoko eragile komunitarioekin elkarlanean.

Gizarte kohesioaren beste oinarrietako batek emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari egiten dio erreferentzia. Benetako

social, en comparación con otras ciudades, las medidas asistenciales y de apoyo establecidas para mitigar los efectos económicos y sociales derivados de la pandemia -los cuales afectaron a una buena parte de la población e incidieron también en las situaciones de vulnerabildad de los colectivos más frágiles, acrecentando las brechas socioeconónicas- se vieron reforzadas gracias al Pacto Interinstitucional para la Inclusión Social en Donostia / San Sebastián, el cual ha contribuido significativamente a avanzar en la reducción de las desigualdades sociales y territoriales (de renta, educativas, laborales o de acceso a infraestructuras, servicios, cultura,..). La implantación de estrategias y líneas de trabajo, desde una perspectiva innovadora y orientadas a la prevención y la acción interinstitucional y comunitaria, han permitido mejorar el grado de cohesión y paliar factores de exclusión que afectaban a los sectores de la población donostiarra más vulnerables en lo referente a pobreza, diversidades funcionales, salud mental, situaciones de “sinhogarismo”, soledad, desempleo de larga duración,…. Hay que señalar que las estrategias en materia de cohesión social, no se limitan al término municipal sino que trabaja en una respuesta supralocal, trabajando con agentes comunitarios del conjunto del territorio de Gipuzkoa.

Otro de los pilares del modelo de cohesión social de la ciudad se refiere a la igualdad entre mujeres y hombres. Como resultado de los

berdintasunaren aldeko gizarte mugimenduen ondorioz, eta tokiko erakundeen laguntzarekin –funtsean, udalarena–, 2030ean munduko herrialde aurreratuenekin pareka daitezkeen berdintasun mailak lortu ditu Donostiak sektore estrategiko guztietan (ekonomikoak, kulturalak, sozialak, politikoak, eta abar), Eskandinaviako herrialdeen maila berean jarrita. 2027ko maiatzeko hauteskundeetan, herritarren gehiengoak eman zuen Donostiako lehen emakumezko alkatearen aldeko botoa, eta karguaz jabetu zenean indarkeria matxista guztiz desagerraraztea eta udal politika guztietan berdintasuna bermatzeko zeharkako neurriak hartzea izan zen haren lehen konpromisoetako bat. Nazioarteko ikuspegian, jardunbide egokien eredugarri da Udalaren 2027-2031 aldiko berdintasun plana, eta horregatik, Nazio Batuek saria eman zioten hiriari, eta alkate berriak New Yorken jaso zuen 2027. urtearen amaieran.

movimientos sociales en favor de la igualdad efectiva y con el apoyo de las Instituciones locales, fundamentalmente el Ayuntamiento, en 2030 Donostia ha alcanzado unos niveles de igualdad en los diferentes sectores estratégicos (económicos, culturales, sociales, políticos, etc.) equiparables a los de los países más avanzados del mundo y al mismo nivel que las referencias de Escandinavia. En las elecciones de mayo de 2027, la ciudadanía votó mayoritariamente por la que posteriormente pasa a ser la primera alcaldesa de Donostia / San Sebastián de la historia, uno de cuyos primeros compromisos consiste en erradicar completamente la violencia machista y adoptar medidas transversales que garanticen la igualdad en todas las políticas municipales. El nuevo Plan municipal de igualdad 2027-2031 es reconocido internacionalmente como un ejemplo de buena práctica y por ello, Naciones Unidas otorga un reconocimiento a la ciudad, que la nueva alcaldesa recoge en Nueva York a finales de 2027.

Aste honetan bertan, Tokiko 2030 Agenda monitorizatzen duen taldearen lan saioa egin da, sei hilean behin antolatzen dena. Garapen Iraunkorreko Helburuak (GIH) betetzeko Ekintza Plana hiriko eta lurraldeko eragile ugarik azken hamarkadan bideratutako akordioaren eta lanaren ondorio da. Izan ere, beren jomugak, helburuak eta konpromisoak hartu dituzte, 2030 Estrategiarekin ere bat etorriz. Bilera horretan, Tokiko 2030 Agendaren Planaren barnean

Esta misma semana se ha celebrado la sesión de trabajo semestral del grupo de monitorización de la Agenda 2030 local. Este Plan de Acción para el cumplimiento de los Objetivos de Desarrollo Sostenible-ODS es fruto del consenso y trabajo continuado a lo largo de la década de un amplio conjunto de agentes de la ciudad y el territorio, que han asumido sus propias metas, objetivos y compromisos, en coherencia también con la Estrategia 2030. En dicha reunión se ha dado

emandako aurrerapausoen eta lorpenen berri eman da, gizarte erronkei, erronka ekonomikoei, eta ingurumen erronkei dagokienez. Gainera, 2029ko aurrerapausoei buruzko txostena aurkeztu da.

2020ko hamarkadaren erdialdean abiada bizian hazi zen teknologia berrien ezarpena (merkataritza elektronikoa, *blockchain*, adimen artifiziala, errealitate birtuala, biologia sintetikoa, 3D inprimatzea…), eta ondorioz, makinek eta teknologiak bizkor ordezkatu dute gizakien eskulana. Testuinguru horretan, kroniko bihurtu da giza talde batzuen langabezia egoera, automatizazio boladaren eragin handiena izan duten sektoreetan nagusiki (merkataritza, bankugintza, administrazioa, eta abar). Erantzuna emateko, Donostia Udalak, gainerako erakundeekin batera, zenbait programa eta laguntza neurri diseinatu ditu berriz laneratu ezinaren ondorioz gizarte bazterketa sufritzen dutenei laguntzeko, eta nabarmen handitu du biztanle horiek gizarteratzeko eta haiei prestakuntza jarraitua emateko baliabide publikoak. Aurreko hamarkadetako zahartze prozesuaren ondorioz erabiltzen ez diren ikastetxe eta hezkuntza zentro batzuk birdiseinatu dira, pertsona horiek gaitzeko erabili eta berriz ere lan merkatuan txertatu ahal izan daitezen, birziklatze teknikoaren zailtasunak eta aldaketaren aurkako erresistentzia psikologikoa gainditzeko “pertsonalizatutako” prestakuntza programen bitartez.

cuenta del avance y logros del Plan de Agenda 2030 Local en el abordaje de los retos sociales, económicos y medioambientales y se ha presentado el informe de progreso del año 2029.

A mediados de la década de 2020 se produce una aceleración vertiginosa en la implantación de nuevas tecnologías (comercio electrónico, *blockchain*, inteligencia artificial, realidad virtual, biología sintética, impresión 3D…), lo que conlleva una sustitución rápida de mano de obra humana por máquinas y tecnología. En este contexto, se produce una cronificación de algunos colectivos de personas en desempleo, fundamentalmente en los sectores con mayor exposición a esta nueva ola de automatización (comercio, banca, administración, etc.). Como respuesta, el Ayuntamiento de Donostia, junto con el resto de instituciones, diseña varios programas y medidas de apoyo para atender a las personas que sufren la exclusión social derivada de la incapacidad de reinserción laboral e incrementa sustancialmente los recursos públicos dedicados a la inserción social y formación continua de estas personas. Varios centros escolares y educativos que han quedado en desuso por el proceso de envejecimiento de las décadas anteriores son rediseñados para orientarlos a la capacitación de estas personas, con el objetivo de reinsertarles en el mercado de trabajo a través de programas de formación “personalizados” para superar las dificultades del

reciclaje técnico y la resistencia psicológica a la transformación.

Hiriak ahaleginetan jarraitzen du ekonomiaren eta enpresen garapen jasangarria, orekatua eta erresilientea erraztuko eta ahalbidetuko duen ingurune bat mantentzeko, bi joeraren artean nabigatuz: batetik, hirian tradizioz finkatuago dauden sektoreak mantentzea eta are eraldatzea ere, eta bestetik, jarduera eremu berritzaileagoak, arian-arian estrategia egoki eta jarraituen ondorioz pisu handiagoa hartzen ari direnak, garatzea eta finkatzea. Alderdi horretan, azken hamarkadan indartu egin da Gipuzkoako lurraldeko ezagutza zentroekiko eta enpresekiko lankidetza eta, hartara, hiria bera eta hirian bertan esperimentatzeko laborategi bihurtu da Donostia: horra hor zer den “DonostiaLab”. Hortaz, esperimentazioan eta erakusketan oinarrituta, aldi berean hiriko arazoetarako konponbideak probatu eta erabili ahal izan dira enpresa sarearen garapenei esker.

La ciudad ha continuado sus esfuerzos por mantener un entorno facilitador y que posibilite un desarrollo económico y empresarial sostenible, equilibrado y resiliente, que navegue entre el mantenimiento e incluso transformación de los sectores más tradicionalmente asentados en la ciudad y el despegue y consolidación de áreas de actividad más innovadoras y de elevado valor añadido, que van cobrando un progresivo peso como fruto de acertadas y continuadas estrategias. En este sentido, a lo largo de la última década se ha reforzado la colaboración con los centros de conocimiento y las empresas del territorio de Gipuzkoa, de forma que Donostia se ha convertido en un laboratorio para la experimentación de y en la ciudad, “DonostiaLab”. Consecuentemente, estos desarrollos del tejido empresarial, a partir de la experimentación y exhibición, permiten, a su vez, testar y utilizar soluciones a las problemáticas urbanas.

Ildo beretik, Administrazioak irekita mantendu ditu izaera berritzaile eta interes estrategikoa duten enpresa proiektu berriei laguntza publikoa emateko lerroak, adibidez, erosketa publiko berritzailearen bitartez (enpresa berriei babesa emateko eredugarri gisa funtzionatzen du, horiek abiarazteko eta finkatzeko bidea ematen duenez). Bestalde, orain eraginkortasun

En la misma línea, la Administración mantiene sus líneas de apoyo público a nuevos proyectos empresariales de carácter innovador e interés estratégico, a través por ejemplo, de la compra pública innovadora (que actúa como un elemento ejemplarizante en apoyo de nuevas empresas, en la medida en que supone un lanzamiento y consolidación de las mismas). Por otro lado,

handiagoz egin daitezke hirian enpresak martxan jartzeko prozesuen eta eskakizunen izapideak, 2024-2027 aldian Tokiko Administrazioa Eraberritzeko azken Plan Estrategikoaren ezarpenaren ondorioz.

como uno de los resultados de la implantación del último Plan Estratégico de Modernización de la Administración Local 2024-2027, se ha mejorado la eficiencia en la tramitación de los diversos procesos y requerimientos para la implantación de empresas en la ciudad.

Garapen ekonomikoari emandako bultzada horretan, garrantzi handia izan du lurraldearen ikuspegi global eta estrategikoak, eta malgutasun, oreka eta jasangarritasun kontzeptuak bildu dira haren oinarrian; hala, lurzoruaren erreserbak eta hiriaren nahiz ekonomiaren aukera eremuak baliatu dira, udalerria egituratzen laguntzeko eta balio erantsi, teknologiko… handiko jarduerak ezarri, garatu eta sendotzeko erraztasunak emateko. 2030an, jadanik ikus daiteke Miramon handitzeko lanak eta ordura arte Eskuzaitzetan egindako garapenak baliagarriak izan direla hirira inbertsioak erakartzeko eta bertan enpresak eta puntako industria jarduerak ezartzeko.

En este impulso al desarrollo económico ha tenido gran importancia la visión global y estratégica del territorio a medio-largo plazo, basada en conceptos de flexibilidad, equilibrio y sostenibilidad, aprovechando las reservas de suelo y los espacios de oportunidad, tanto urbana como económica, para contribuir a la vertebración del municipio y favorecer la implantación, el desarrollo y el refuerzo de actividades de elevado valor añadido, tecnológico,... En 2030, puede ya comprobarse cómo la ampliación Miramón o los desarrollos efectuados hasta el momento en Eskuzaitzeta han contribuido a la mejora del atractivo inversor de la ciudad y a la implantación empresarial y de actividad industrial puntera.

Europako instalazio zientifiko handiak dauden hiriekin senidetzeari esker (Grenoble, adibidez, Erradiazio Sinkrotroikoaren Europako Laborategia – ESRF – edo Merin -Geneva – Ikerketa Nuklearrerako Europako Erakundearen egoitza– CERN) eta, batez ere, Donostiako zientzia, teknologia eta berrikuntzako ekosistemako erakundeen lankidetza-gaitasunari esker, pixkanaka espazio komun batean bateratu

Iniciativas como el hermanamiento con ciudades donde se ubican grandes instalaciones científicas europeas (como Grenoble, con el Laboratorio Europeo de Radiación Sincrotrón-ESRF o Merin-Ginebra, sede de la Organización Europea para la Investigación Nuclear- CERN ) y, sobre todo, la capacidad de cooperación de las entidades del ecosistema de ciencia, tecnología e innovación donostiarra han permitido progresivamente aunar

ahal izan dira ikerketa zentro europar horietan garatutako ezagutza eta lurraldeko enpresa gaitasun aktiboak; horrela, hurbilketa lokalizatua eta bikaintasunezko ezagutzaren transferentzia bultzatu da lurraldeko teknologiaren eta industriaren sektorean, eta horren ondoriozko proiekzio inernazionala bultzatuz.

en un espacio común el conocimiento desarrollado en dichos centros de investigación europeos con las competencias empresariales activas del territorio, favorecido la aproximación localizada y la transferencia de conocimiento de excelencia en el sector tecnológico e industrial del territorio y su consecuente proyección inernacional.

Oraingoan ere, pertsonak daude ekuazio horren erdigunean. Donostiar biztanle askok prestakuntza maila handia izan arren (nahiz eta ez izan beti Donostiako sektore profesionalaren eskakizunen araberakoa), 2030. urtearen ateetan lan merkatuan borrokatu beharreko errealitate bat da oraindik ere laneko prekarietatea, kalitate txikiko enpleguari eta behin-behinekotasunaren kronifikazioari dagokienez, eta, era berean, donostiarren gaitasun profesionalen eta hiriko jarduera ekonomikoaren eskariaren arteko lotura egin behar da, bertako talentuari eusteko egin diren aurrerapenak finka daitezen.

Una vez más, las personas constituyen un elemento central en esta ecuación; aun contando con un elevado nivel de formación en buena parte de la población donostiarra (si bien no siempre en consonancia con los requerimientos del sector profesional donostiarra), la precariedad laboral, en términos de empleo de baja calidad y cronificación de la temporalidad, sigue siendo, a puertas del 2030, una realidad a combatir en el mercado de trabajo, al igual que la necesidad de conexión entre las capacidades profesionales de la población donostiarra y las demandas de la actividad económica de la ciudad, de manera que se consoliden los avances en la retención del talento local.

Halaber, Donostiako ekonomian aurrera egiten ari dira merkatu global horretan aldaketa teknologikoen eskutik agertzen doazen lan modalitate berriak, enplegu nitxo berriak. Bestalde, 2020ko osasun krisiak distantzia sozialaren beharra sortu zuen, eta, horren eraginez, telelanerako (errealitate global bihurtu zen, bere potentziala, eraginkortasuna eta

Así mismo, nuevas modalidades de trabajo, nuevos nichos de empleo que van surgiendo en este mercado global, auspiciados por cambios tecnológicos, empresariales y sociales, también se van abriendo paso en la economía donostiarra. La forzada experiencia de distanciacimento social de la crisis sanitaria de 2020, conllevó un gran salto hacia el teletrabajo

kontziliazioan duen eragina erakutsiz) eta teleprestakuntzarako jauzi handia egin zen, eta digitalizazioa ere nabarmen bultzatu zen.

(que se convirtió en una realidad global, demostrando su potencial, su eficiencia, así como su efecto en la conciliación ) y la teleformación y un notable impulso en la digitalización.

Hiriak rol proaktiboa hartu du iraupen luzeko langabetuei dagokienez, eta langabeziaren kronifikazioa arintzeko saioak egin ditu, ikaskuntza eta prestakuntza jarraitua sustatuz (lan merkatuaren eskakizunetara egokitzeko) eta tokiko administrazio publikoan langileen zahartzeari aurrea hartzeko jardunez (ordezkatzeko eta premia berriak asetzeko).

En este sentido, la capacidad de transformación y adaptación de las personas resulta clave para abordar los retos de futuro, como consecuencia de la mayor rapidez e intensidad en la que se producen los cambios. La ciudad ha asumido un rol proactivo en lo que se refiere a las personas desempleadas de larga duración, intentando paliar la cronificación del desempleo, impulsando el aprendizaje y la formación continua (adecuación a requerimientos del mercado laboral) y actuando de forma anticipativa ante el envejecimiento de plantillas en la Administración pública local (reemplazo y nuevas necesidades).

Orobat, aipatutako profil profesionaletako asko STEAM ikasketa tipologiarekin lotuta datoz (zientzia, teknologia, ingeniaritza eta matematikak, eta, ondoren, A ere gehitu zaie, artea+diseinua), eta aipatzekoa da hamarkada honetan emakumeek gero eta presentzia handiagoa dutela ikasketa mota horietan, puntako lanpostuetara irispidea izateko.

En paralelo, buena parte de los mencionados nuevos perfiles profesionales vienen ligados a la tipología de estudios STEAM (Ciencia, Tecnología, Ingeniería y Matemáticas, a los que posteriormente se añade la A, por Arte+Diseño); cabe señalar que en esta década las mujeres están cada vez más presentes en estas tipologías de estudios para poder llegar a esos puestos de trabajo punteros.

2030ean, Donostiak zerbitzu aurreratuen sektore dinamikoa du eta gero eta enpresa hartzen ditu barnean Gipuzkoako ekoizpen multzoaren premiei erantzuna emateko; hori horrela,

En 2030 Donostia / San Sebastián cuenta con un dinámico sector de servicios avanzados con creciente peso empresarial que da respuesta a las necesidades del conjunto productivo

hiriburuak lurralde osoko enpresen jarduera sustatzeko eta garatzeko euskarri gisa betetzen duen eginkizuna indartzen du, eta zerbitzu aurreratuen erreferentzia zentro bihurtu da 4.0 transformazioari eta eredu eta teknologia berriei lotutako guztian.

guipuzcoano, reforzando el papel de la capital como apoyo al funcionamiento y desarrollo de la actividad empresarial del conjunto del territorio y se ha constituido en centro de referencia en servicios avanzados en lo relativo a la transformación 4.0 y los nuevos modelos y tecnologías.

Tokiko merkataritzak, hirian tradizioz finkapen handienetakoa izan duen jarduera eremuetako batek, bertako bizi kalitate dinamikoa eta erakargarria sustatzen eta hiriko sarea eta auzoak egituratzen laguntzen du. Sektoreak ongi jakin zuen 2020ko hamarkadan zehar suspertzen eta moldatzen, askotarikotasuna eta lurralde banaketa orekatua mantenduz eta sektorearen eragozgarri ziren erronkei eta arazoei aurre eginez, baita osasun krisiaren zein horren ondorioz proba latzari ere; horrenbestez, 2030. urtean, badirudi onez konpondu duela belaunaldien erreleboaren erronka eta gai izan dela nazioarteko markak dituzten merkataritza enpresa handien desafioari eusteko. Zailtasunak zailtasun, digitalizaziora, kontsumo joera berrietara, Internet bidezko erosketaren lehiara eta sektore batzuetako automatizazio prozesuetara egokitu da, bere izaera galdu gabe.

El comercio local, una de las áreas de actividad más tradicionalmente asentadas en la ciudad y que contribuye a su calidad de vida, dinámica y atractiva, y a la vertebración del tejido urbano y los barrios, ha sabido recuperarse y transformase a lo largo de la década de 2020, manteniendo su variedad y una distribución territorial equilibrada, haciendo frente a los desafíos y problemáticas que venían lastrando al sector y a la dura prueba de la crisis sanitaria y sus consecuencias, de manera que en 2030 parece tambíen haber resuelto satisfactoriamente el reto del relevo generacional y mantiene el pulso frente a las grandes empresas comerciales de marcas con impronta internacional. No sin dificultades, se ha adaptado a la digitalización, a las nuevas tendencias de consumo y a la competencia de la compra a través de internet y a los procesos de automatización en algunos sectores, conservando su identidad.

Tokiko merkataritza eredua “zerbitizaziorantz” bideratu da neurri handian, bezeroei esperientzia berriak eskaini eta “produktua saltzera mugatzen” den ikusmoldea gainditu behar dela barneratu

El modelo comercial local ha orientado en buena medida hacia la “servitización” (tras interiorizar la necesidad de ofrecer experiencias nuevas a la clientela y superar la concepción de “limitarse a la

ostean, eta apustu argia egin du bere rola indartzeko: hiriko irudia eta erakargarritasuna hobetzeko zereginean, eremu jakin batzuk biziberritzekoan –izan ere, “auzoko saltokien” alderdi “dotazionalak” esanahi adierazgarriagoa hartu du adinekoen bizi kalitateari bagagozkio (irisgarritasuna, gertutasuna)– eta bertako eta 0 km-ko produktuak sustatzekoan, azken urteetan arian-arian onartu diren kontsumo planteamendu jasangarriagoekin bat etorriz (“erosketa arduratsua).

venta de producto”), con una clara apuesta por reforzar su papel en la imagen y atractivo de la ciudad, así como en la revitalización de determinadas áreas, donde el significado “dotacional” del “comercio de barrio” en cuanto a la calidad de vida de las personas mayores (accesibilidad, cercanía, …) ha cobrado mayor significado, o también en el impuso del producto local y de Km 0, en coherencia con planteamientos de consumo más sostenibles, “compra responsable”, asumidos progresivamente en los últimos años.

Aldi berean, esan daiteke Donostiako saltokien erakargarritasunak bere eragin eremu komertziala mantendu duela, eta hiriaz gaindikoa dela oraindik. Hortaz, Gipuzkoak lurraldearen zati handia hartzen du barnean, Iparraldera iristeraino. Bertako saltokiek bere garrantziari eutsi diote, jarduera turistikoarekin, ostalaritzarekin… sinbiosian.

Al mismo tiempo, puede decirse que el atractivo del comercio donostiarra ha mantenido su área de influencia comercial, que sigue trascendiendo el ámbito metropolitano, abarcando buena parte del territorio guipuzcoano y llegando hasta Iparralde; el comercio local conserva su peso en su simbiosis con la actividad turística, la hostelería,….

2030an, mundu osoan gastronomiako erreferentea izaten jarraitzen du Donostiak, oinarrizko hiru habetan bermatuta: kalitatea, berrikuntza eta ekintzailetza. Hain zuzen ere, munduan biztanle bakoitzeko Michelin izar gehien dituen hirietako bat da oraindik. Kalitate hori balio kate osoan dago oinarrituta, Gipuzkoako lurraldeko bertako produktuekin lotuta eta landa eremua eraberritzearen aldeko apustua eginik. Bertako nahiz kanpoko belaunaldi gazteak sustatzean oinarritutako berrikuntza bat

